

iruner


201. zenbakia. 2012ko urtarrila



Stop
Desjabetzeak
Kolektiboa
Irunen
aurkeztuko da



Bidasoa XXI
water-polo
taldea,
Gipuzkoako
onena



Patxi Perez
aktore irundarra

Maite Salaberria, Irungo komisarioa, Ertzaintzan maila horretara iritsi den lehen emakumea

Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Aurkibidea

4.- *Lapikoan*

- Patxi Perez aktorea, *Cuéntame* telesailean.
- Etxeak desjabetzearen aurkako kolektiboa Irunen aurkeztuko da
- Maite Salaberria, Ertzaintzako lehen komisario emakumezko.

13.- *Kirolak.*

- Fermin Aramendia abenturazalea

15.- *Gaia Nagusia.*

- Bidasoa XXI, Irungo water-polo taldea.

19.- *Bi hitzetan:* Olerki Topaketak Kabigorriin

22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Ametsak

24.- *Eleak iruten.*

25.- *Lerroz lerro.* Joseba Sarrionandia *Moroak gara behelaino artean?*

26.- *Kultur Agenda.*

28.- *Gazte Informazioa.*

irunero

Helbidea: Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

irunero@infotxingudi.com

www.infotxingudi.com

Argitaratzailea: TB S.L.

Erredakzioa

maketazioa: Ana Grijalba.

Kolaboratzailea:

Mikel Asurmendi

Zuzentzailea:

Xabier Kerexeta.

Inprimategia: Antza

Tirada: 3.500 ale

Lege gordailua: SS-230-94

ISSN: 1134-0606

Patxi Perez, aktorea

“*Cuéntame* telesailean lan egitea gozamena da”

Gaztetatik agertokiaren lilurak erakarrita, taula gaineko lana ogibide bilakatzera deliberatu zen. Ez zen makala nahia; baina ordutik bi hamarkada pasatxo joan diren honetan daukan ilusio kutsakorrari erreparatuz, ez da harritzekoa lortu izana. *Legaleon T* talde irundarrarekin eman zituen lehen urrats profesionalak. Gerora ere zineman eta telebistan jardun zuen. Gaur egun, TVEren *Cuéntame cómo pasó* telesail ospetsuko aktorea da.



- Nolako gogoz ekin diozu urte berriari?

Gabonak lehenbailen bukatzeko gogoz! Ez ditut batere gustuko, baina protokolo guztia betetzen dut aita naizelako. Ez dut atsegin Gabonen nahitaezko izaera hori eta, are gutxiago, makineria komertziala.

Urte berriari gauzak, ahal den neurrian, ondo joateko nahiaz ekin diot. Etorkizuna iragana baino hobea izatea nahi nuke, bai maila pertsonalean, bai harremanetan...

- Krisiak ikuskizunaren mundua gogor jo badu ere, zuk *Cuéntame* telesailen lana duzu une honetan. Zorionekoa zu!

Bai, lana edukitzea zorte ona da garaiotan. Bi denboraldiz parte hartu dut telesailen eta urtarriaren bukaeran 13.aren grabaketa bukatuko dugu. Ni aktore nagusien multzokoa ez naizenez, bada, ez didate denboraz jakinarazten jarraituko dudan ala ez; hori ez dut bezpera arte jakingo. Mundu honek halaxe funtzionatzen du. Atal kopuru jakin batean lan egiteko kontratua sinatzen dut. Atal horiek hainbat denboralditan heda daitezke.

- Aktore zaren aldetik zer ekarpen egin dizu halako produkzio handi batean parte hartzeak?

Diru sarrera, nire lanaren erakusleiho handia eta esperientzia paregabea.

Juan Echanoverekin eta Ana Ariasekin (Echanoveren emaztea fikzioan) lan egitea zorte handia da. Echanove betidanik izan dut gustuko, eta orain lankide izatea luxua iruditzen zait. Gainera, tabernako pertsonaia naizenez, telesailako antzezle ia guztiak handik igarotzen dira.

Bestalde, grabaketetan oso giro ona dago, esan liteke familia bat direla honezkerok. Denak jatorrak dira eta tratua hurbila da.

Grabatzera joan behar dudan bakoitzean ilusioz hartzen dut. Gozatzen dut, eta aldi berean ikasten saiatzen naiz. Ikuspuntu profesionale-



rik eta pertsonaletik asko aberasten nauen esperientzia dela esango nuke.

- *Cuéntame*-ko lanaz gain, ba al duzu aurten beste proiekturik?

Gaur egun ez daukat beste proiekturik. Antzerkiaren alorrean kinka larria da. Parte hartzen dudan proiektuak erabat geldirik daude. Arazoa da administrazioarekiko menpekotasun handia dagoela, eta administrazioak antzezlanak baztertzen ditu, edo atzerapenez ordaintzen du; beraz, ondorioa da ekoizleak ez direla arriskatzen.

- Egoera honetan zer irtenbide du aktore batek?

Bizimodua ateratzea, edozein langile bezala. Nik *Cuéntame*-ko hurrengo denboraldirako dei nazatela itxaropena daukat eta, bitartean, auskalo!

Egoera gora behera, ez genuke umorea galdu beharko. Krisiak alderdi positiboak ere baditu: daukaguna estimatzen laguntzen gaitu, nahi dugun hori lortzeko irudimena akuilatzen digu... Gogoan dut Santiago Sanchez valentziar antzerki zuzendariari entzundakoa: "Ez da esan behar *hori zaila da, hori zirraragarria da* baizik".

2011ko lehenengo sei hilabetetan 218 kaleratze-agindu ebatzi zituzten Gipuzkoako epaitegiek. Adineko bi senar-emazteen kasua hurrengoa izan liteke. Etxea enkantean erosi die aurrezki kutxak. Mari Carmen alabak ere berea saldu behar izan du; baina, sistemaren paradoxak, zorra gero eta handiagoa da. Stop Desjabetzeen laguntza jaso dute. Kolektiboa Irunen aurkeztuko da laster.



Stop Desjabetzeak kolektiboko Mikel Sanchez, eta Mari Carmen Vazquez kaltetua.

Etxeen desjabetzeari STOP



Stop Desjabetzeak kolektiboaren protesta bat.

Ez da Mari Carmen Vazquez errenteriarak bere kinka larria publikoki azaltzen duen lehendabiziko aldia. Halere, kontakizuna aletzean begiak lausotzen zaizkio, presondegi batean baino harrapatuagoa egoteaz gain, jasotako tratua iraingarria izan baitu. Desjabetzeen aurkako kolektiboaren laguntza eskatu duten kaltetuetako bat da.

Mari Carmen eta bere senarra 2006an 200.000 euroko kreditua itzultzen ari ziren, arazorik gabe. Alabaina, anaiak ez zuen ordaintzen negozio-zorrrak kitatzeko aurrezki kutxak emandako 172.000 euroko mailegua. Mailegu honen bermatzaileak haren gurasoak zirenez, senar-emazte zaharrak zorpetu ziren. “Kutxak nik mailegua ordain nezala proposatu zidan, interesak txikiak izango zirela aginduz”, azaldu du Mari Carmenek. “Errealitatea, ordea, bestelakoa izan zen: interesak %17koak zirenez, 1.700 euro ordaindu behar genituen hileroko; hau da, senarraren eta bion soldata adina. Hiru urtez moldatu gara aurre egiteko, baina ezin izan genuen jarraitu. Harrez geroztik, Kutxaren aldetik erdeinuzko tratua jaso nuen: pentsa, hilabete bateko zorra besterik ez nuela, bi etxetako giltzak eskatu zizkidaten, kontua konpondu aldera. Azkenean gure etxea saldu behar izan dugu 180.000 eurotan, eta haren gainean dagoen beste bat alokatu”. Ez da nahikoa izan, ordea, eta prozesuan sortutako gastuak gehitu behar zaizkio eta: hainbat tasazio, berandutze-interesak, abokatuak... Guztira, 90.000 euro.

Mari Carmenek etxea galdu du eta hurrengo urratsa gurasoak haien etxetik botatzea da

“Aurrezki kutxara joan nintzen orduan, egoera itogarria zela adieraztera. *Lasai, seme-alabak dituzu eta*, erantzun zidaten, zorra haiena izango dela iradokiz, baina nire seme-alabak adin txikikoak dira!” Ondorioa izan da gurasoen etxea desjabetu eta enkantean saldu dela, baina trukean zorrraren % 60a soilik zuritzeko baino ez dutela eskuratu. Orain, guztira 200.000 euro pagatu behar ditu. “Hurrengo urratsa 80na urte dituzten nire gurasoak kaleratzea izango litzateke”. Kasu honetan kolektiboak proposatzen du zorra kitatzea etxeen truke, eta gurasoek, beren etxean bizitzen jarraitzeko, 400 euroko errenta ordain dezatela. Urte amaieran Stop Desjabetzeak Mari Carmen lagundu zuen, Kutxara aipatu proposamena egitera joan zenean. Kolektiboaren presioari esker, emakumeari atea ireki zizkieten, bai eta eskaintza aztertu zutela agindu ere.

Bestalde, epaitegian kasuaren prozesua eten egin da, doako justizia eskaera onartzen den ala ez erabaki arte.

Stop Desjabetzeak zorrak kitatzea etxebizitza ematearen truke proposatuko du



Estatu guztian eratzten hasi ziren M15M mugimendua kari, desjabetzeen aurkako kolektiboak sortu dira, krisiaren eraginez bankuak gauzatzen ari diren etxeen desjabetze masiboak gelditzeko xedez, sortu ere.

Gipuzkoako kolektiboa, sarea zabaldu aldera, bere lana hainbat auzo eta herritan aurkezten ari da. Laster batean Irunen ere bere egitekoaren berri emango du.

Gaur egun 3 kasu kudeatzen ari dira. Egoera publikoki salatzea eta aholkularitza eskaintzea da zeregin nagusia. Bestetik, “egoera honetara zergatik iritsi garen salatu nahi dugu”, azaldu digu Gipuzkoako kolektiboko Mikel Sanchezek. “Bankuen diruzalekeria dago honen jatorrian”.

Proiektuen artean nagusia legeriaren

aldaketa bultzatzean datza. “Urte hasiera honetan zera proposatuko dugu: ondasuna bankuari ematea nahikoa izan dadila zorra kitatzeko; horrela, bada, familia batek hutsetik hasteko aukera izango luke”. Gaur egun legeak ezartzen du bankuak eskubidea daukala ondasuna bere balioaren %60an eskuratzeko. Helburua Estatu osoan 500.000 sinadura biltzea da, kopuru hori behar baita herri-ekimenezko proposamena aintzat hartua izan dadin. Desjabetzeen aurkako kolektiboa proiektu horren aldeko mozioak aurkezten hasia da Gipuzkoako udaletan. Donostian eta Errenterian dagoeneko onartu da, eta Irungoan urtarrilean bozkatzea aurreikusita dago.

stopdesahucios@plazan.net

Maite Salaberria, Irungo Ertzaintxeko komisarioa

“Bidasoan lapurreta kopuruak behera egin zuen 2011n”

Ertzaintzaren sorreraren 30 urte betetzen diren honetan, emakume bat lehendabizikoz komisario izatera iritsi da. 48 komisario-ren artean, bada, emakume bakarra Maite Salaberria da. ETAk hil zuen Mikel Uriberen bulego berberean artatu gaitu donostiar honek. Aro berri baten atarian, gogoz ekin dio bidasoarron segurtasuna hobetzeari.



Maite Salaberria, bere bulegoan.

- Zergatik ez da emakumezkorik izan komisarioen artean 30 urtean?

Orain arte komisario guztiak lehenengo promozioakoak izan dira. Ni bosgarrenekoa naiz. Lehenengo komisario emakumezkoa naiz eta, aldi berean, maila betearazleko bakarra, ez baitago emakumerik komisariandokoen artean.



- Zer dela eta hartu zenuen oposaketara aurkezteko erabakia?

Ez da planifikatutako kontu bat izan. Beti aurkeztu dut nire burua ikastaroak egiteko. Halaxe, pixkanaka mailaz igo naiz. Azken oposaketaren emaitza ezustekoa izan da, bi maila igo baitut batera, ofiziala nintzen eta. Halere, 2000. urtetik nire mailaren gainetik zeuden zereginak burutu ditut. 2008tik lanean jarduten dut Irungo ertzainetxean.

- Nola sentitu zara?

Bada, egia esateko, nik neure buruari baino meritu handiagoa aitortu didate ingurukoek. Harrotasunez eta ardura handiz hartu dut postu berria. Kontuan hartu behar da, aitzindaria naizenez, nire lankide emakumezkoen erreferentzia sentitzen naizela; ondorioz, horrek nire buruari gehiago exijitzera eramaten nau. Gainontzekoan, harrera naturala izan da. Areago, dagoeneko emakumeren bat komisario izango zela uste zutelako, harritu egin dira hainbat erakundetan.

- Lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa giltzarri al da emakumearen sustapen profesionalerako?

Bai, hala da. Alde batetik, jaso dugun heziketaren barne dago familiaren gidaritzaz gure

ardura dela. Horrek zera dakar sarri: guk geuk hartzen dugula sustapen profesionaletik at geratzeko erabakia. Egia da, baita ere, hainbat enpresarik emakumeak sustatzeko orduan erre-zeloak dituztela.

Nire kasuan senarraren eta gurasoen laguntza izan dut. Pentsa ezazu ikastaro bat egiteko hiru hilabetez lanegunetan etxetik kanpo bizi behar izan nuela.

- Zer ekarpen egin dezakete emakumeek?

Emakume gehienok etxekoandreak garenez, hezi behar dugu, planifikatu behar dugu... Trebezia horiek lanerako baliagarriak dira.

- Gatozen zure lanaz mintzatzeraz. Irun nolako hiria da seguratasunari dagokionez?

Euskadi delitu-indizetan estatuko azkenetarikoa da. Gipuzkoan 2011n etxeetan eta enpresetan egindako lapurreta kopuruak gora egin zuen; Irunen, berriz, behera.

Genero indarkeriatatik salaketa gehiago jarri dira; baina arrazoia ez da kasu mota horiek gora egin dutela, baizik eta orain emakume gehiagok salatzea erabakitzen dutela.



Oro har, Irun hiri eroso dela esan liteke.

- Zein da irundarrek segurtasun mailaren inguruan daukaten pertzepzioa?

Ez daukagu kontu horren gaineko daturik. Dena dela, pertzepzioa askotan ez da errealitatearekin bat etortzen. Esaterako, jendearengan alarma handia sortu duen delitu bat gertatu bada, segurtasun ezaren pertzepzioa handitzen da; baina hori ez da errealitatea, errealitatea datuetan bilatu behar da.

- Zein dira Irunen sarrien egiten diren delituak?

Ebasketa txikiak eta ibilgailuen barruko lapurretak. Asteburuetan, alkohola edatearen eraginez, ohi baino borroka gehiago gertatzen dira.

- Immigrazioak delituen gorakada ekarri du?

Immigrazioa kriminalizatzearekin kontuz ibili behar dugu. Aurreiritziak alde batera uztea komeni da. Orokorrean ezin da baieztatu immigrazioak delinkuentziaren gorakada ekarri duenik. Irunen kasuan, datuetara joz gero, esan dudan bezala, iaz kopurua jaitsi zen

2010aren aldean. Hori horrela bada ere, gure gizartea gero eta gatazkatsuagoa dela uste dut.

- Zer aldatu da Ertzaintzaren barruan eta kanpoan ETAk indarkeriaren bukaera iragarri zuenetik?

Gizarte osoarentzat berri pozgarria da, baina bereziki mehatxaturik zeudenentzat. Dena den, tentuz ibili behar da oraindik. Armak ematea espero dugu.

Gizarteak eskatzen dituen bestelako beharretan baliabideak inbertitzea izango dugu aurrerantzean. Horren adibide argia da segurtasun neurriak arintzearen ondorioz eskoltak orain genero indarkeriaren biktimak diren emakumeak babesteko balia daitezkeela.

- Zein dira zure erronkak ertzainetxeko buru gisa?

Hiritarrei arreta bikaina eskaintzea. Bestalde, gure lehentasuna delituaren prebentzioa da. Unitate honetarako, zehazki, beste erronka bat daukat: lan giro egokia bultzatu nahi dut, helburu orokorrak lortzeko orduan eraginkorra delako. Ertzainek lana nahi dutelako egin dezaten nahi nuke, ez soilik egin behar dutelako.

Fermin Aramendia irundarraren hiru urteko abentura Atlantikoan

Fermin Aramendia irundarrak 2007an *Portutxiki* izenez bataiatu zuen belauntzi txikia erosi zuen Marseillan. Nabigazioaren munduan aurretik batere esperientziarik izan gabe ere, berealdiko zeharkaldia egitea erabaki zuen. Abentura-egarriak Atlantikoan ertzetik ertzera ibiltzera eramandu. Hiru urte iraun duen bakarkako periplo honetatik *Isiltasunaren terapia* ekarri digu, hausnarketa egiteko ikus-entzunezkoa.



- Nolatan hartu zenuen mundua zeharkatzeko erabakia?

Gorputz hezkuntzako irakasle lanetan nengilen. Ez nengoen gustura nire bizimoduarekin. Kantauriko kostaldea oinez egin nuen; Finisterrera iritsita hodeiertzean belaontzi bat ikusi nuenean, argi eduki nuen mundua itsasontziz korritu



Fermin itsasoan.

nahi nuela, nabigazio kontuetan bate-re eskarmenturik ez banuen ere. Lehenik eta behin, ingurukoen iritziak zein beldurrek nigan eraginik izan ez zezaten, nire burua prestatu behar izan nuen.

Guztira hiru urtez ibilia naiz.

- Zein izan zen hurrengo urratsa?

Marseillara joan nintzen, eta bertan 10 metroko belauntzia erosi nuen.

Handik Kanariak uharteera abiatu nintzen, Mediterraneoan atzean utzita. Gero Afrikara joan nintzen, eta handik Karibera, Atlantikoa zeharkatuz. Hasteko, ondo egon da.

- Nola ateratzen zenuen bizimodua?

Diruzorroa segituan hustu nuen! Kanarietan hilabete pare bat neramala, langabeziako dirua ahitu zitzaidan. Orduantxe hasi zen bidaia! Poltsikoan zazpi euro besterik ez nituenean, barkura joan eta iragarki bat idatzi nuen. Atlantikoa zeharkatu nahi zuten nabigatzaileen soinketa-irakasle lanetan ibili nintzen hondar-



tzan. Kontuan hartu behar da ibilide hori egitea fisikoki gogorra dela.

- Horrelako abentura bizi ondoren, orain zer asmo duzu?

Hemen egunerokoaz gozatzen ikasi behar dut. Ez naiz gustura sentitzen oso mugatuak diren kontuetan, libre sentitzea beharrezkoa dut. Nik bizitakoa erakusten dut herriz herri. Emanaldi horietan, Atlantikoan nengoela landu nuen ikus-entzunezko bat aurkezten dut, *Isiltasunaren terapia* izenekoa: hausnarketa bat da.

***Kalean Bai* Planak euskaldunei dei egin die normalizazioaren aldeko ekarpena egin dezaten**

Euskararen bidetik goaz, bazatoz? Horixe *Kalean Bai* planaren baitan abian jarri den kanpaina berriaren goiburua, elkartetako kideek eta, oro har, euskaldun guztiek euskararen normalizazioaren alde beren aletxo eman dezaten.

Plana 2002an aurkeztu zen, Irungo Udalaren ekimenez eta Irun Irutenek kudeatuta. Helburu nagusia haur eta gaztetxoei eskaintzen zaizkien eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzea da; hartara, hainbat elkarterekin hitzarmenak sinatu dira urte hauetan.

Kanpaina berriaren bidez elkartetako kide, erabiltzaile eta hiritar guztiak aktibatu eta euskararen bidera gonbidatu nahi dira. Fernando San Martin Euskara ordez-kariaren hizetan, “Irun euskalduntzeko denok baitugu zer egina eta zer esana”.

Kanpainaren berri emateko kartel hauek jarri dira Irunen. *Kalean Bai* Planeko kideen argazkia eta zerrenda agertzen da.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOEN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,....

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: fotokop@telefonica.net

Bidasoa XXI water-polo taldea, Gipuzkoako onena



2010-2011ko lehen mailako taldea.



higer bidea, 6-
20280
hondarribia.
gipuzkoa
t(34) 943 64 27 12

arrokaberri@arrokaberri.com
www.arrokaberri.com



2010ean Irungo water-polo taldea Bidasoa XXI klubean sartu zenean bultzada bat ematea erabaki zen, Sergi Perez entrenatzailearen ardurapean. Gaur egun Gipuzkoako talderik indartsuena da.

Zer egin dezakete igerilariak konpetizioari agur esan ondoren uretan kirola egiten jarraitzeko? Water-poloa, erantzun zion galderari Irungo igerilari ohi talde batek. Halaxe, zenbait urtez *Oiasso 1766* izeneko taldeak kirol horren 2. mailan jokatu izan du, harik eta 2010ean Bidasoa XXI klubarekin bat egin zuen arte. Orduan Sergi Perez kataluniar jokalaria ohiak klubaren deia jaso zuen, entrenatzailea izateko eskaintza, jaso ere. Irailean lanari ekin zion. Handik aurrera gure hiriko water-poloa gorantz abiatzen hasi zen ziztu bizian eta onenen artean kokatu da jada.



Sergi Perez entrenatzailea.

Olaizola

**Inmobiliaria
agentzia**

**Salmenta - Alokairuak
Promozio berriak - Aholkularitza**

Beraketa kalea, 17 IRUN
Tel: 943 62 65 85
API 316

www.inmobiliariaolaizola.com



Bidasoa XXI taldeko jokalariaik.

“Helburua water-polo saila indartzea eta beharrezko egitura antolatzea zen. Hala, lehenengo mailan jokatzeko taldea eratu genuen, bai eta bigarren mailako beste bat -jokalariaik heztea xede duena- eta haurren kategoriakoa ere”. Aurreneko sasoiak lehen taldeak mailari eustea lortu zuen. Bigarren denboraldi honetan bultzadaren emaitzak biltzen hasi da Irungo water-poloa. Alebin taldea ere osatu da, baita kadeteena (Eibarko klubarekin batera) eta heziketa prozesuan dagoen neskena ere. Guztira 70etik gora haur eta gaztek dihardute. 2011-2012 denboraldian gorunzko saltoa eman du Bidasoa XXIek. Lehen taldea sailkapeneko 4. postuan dago; beraz, Estatu mailako fasera iragateko aukerak ditu, eta

gaur egun Gipuzkoako artean txapelduak dira irundarrak. Alebinak eta infantilak Euskal Herriko Ligan sartu dira. Sergi Perezen ustez, “gauzak horrela jarraitzen badute urte pare baten buruan Estatu ligan sar gintezke, eta kategoria guztietan taldeak eduki. Halaber, neskena ere osa liteke”. Dagoeneko egitura eraiki da maila guztiak bermatzeko. Bide batez, harrobi hori jokalariai iturri bilakatu da.

Tradizio txikia, arrakasta handia

Tradizio txikikoa eta gutxiengoan dagoen kirola izan arren, water-poloa arrakastaz egiten ari da bidea. Gipuzkoan zazpi talde daude, Irungoa nagusia izaki. “Hori ez da lortzen ahaleginik gabe”.

Water-poloko ia jokalariai guztiak irundarrak

gesAR
gestoria ARANA
consorcio de seguros

asesoria aholkularitza
integral integrala
ingenieria injenieritza
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.
IRUN

Tel: 943 666 050

Fax: 943 618 075

gestoria.arana@garana.com

dira. Eskubaloiairen antzekoa da, baina, jakina, uretan jokatzeko da. Helduek egunero entrenatzen dute eta txikiek astean bitan edo hirutan. Lehiaketan dabiltzanak hamabostean behin partidua kanpoan jokatu beha dute: Nafarroan, Bilbon, Araban edo Santoñan (Kantabriako taldea herri horretakoa baita). Iaz Bidasoa XXleko infantil mailako jokalaritza bat Espainiako Lehiaketa jokatu zuen

Water-poloa gure inguruan oraindik oso kirol ezezaguna da. "Bai, hala da, badi-ra water-poloa zer den ere ez zekiten gurasoak". Sergi bera da taldekide berriak bilatzeaz arduratzen dena. Orain artekoan harrera ona du bere eskaintzak. Arrazoiak nahiko argi ditu: "Kirol honek harrapatu egiten du; behin sartuz gero ez du inork utzi nahi. Ezaugarri erakargarriak ditu: jokoak da, hartumana badago, dibertigarria da... hori bai, aldi berean sakrifikatua ere bai". Kirol hau egin ahal izateko beharrezko azpiegitura da oztopo nagusia, espazio dezente behar baitu. Igerilekua, ordea, kiroldegiko erabiltzaileekin konpartitzea ezinbestekoa da.

Water-poloan jokatzeko interesdunek telefono honetara dei egin dezakete:

670 46 28 37



limpiezas
txukun
garbiketak

C/ General Bergaretxe, 4 - Local 7 - 20104 Irun, Gipuzkoa
Tel: 943 573 291 - Leire: 667 706 791 - Susana: 618 967 673
info@txukun.com - www.txukun.com

Serapio Mujika bekadunek antzinako azpiegitura hidraulikoak aztertuko dituzte

Lauren Etxepare, Josu Laguardia, Iñaki Garrido eta Jesus Laguardia 2011ko Serapio Mujika Ikerketa Bekaren irabazleak dira. Taldeak 9.000 euro jasoko ditu honako proiektu hau lantzeko: *Infraestructuras hidráulicas en la desembocadura del Bidasoa: la subcuenca hidrográfica de Jaizubia (Siglos XVI-XVIII)*. Guztira zortzi proiektu aurkeztu dira 2011ko deialdira.

Jaizubia arroko azpiegiturak

Irun herri aberatsa da errota, burdinola eta bestelako egitura hidraulikoetan. Ugaritasun hori dela eta, jakintza-alor anitzeko aipatu taldeak Jaizubia arroa aztertuko du ikuspegi historikotik, arkitektonikotik zein sozioekonomikotik. Eremu geografiko honetan Urdanibiko errota eta burdinola gune garrantzitsua kokaturik dago, baita Uruneke errota eta antzeko bestelako industriak ere.

Sakonki ikertuko duten aldia XVI. mendetik XVIII.enera bitartekoa izango da. Lanaren emaitza hainbat alderdiren azterketa izango da; hala nola, azpiegitura haietako biztanleen bizi-



Urdnibiko errota.

modua, alokairu-kontratuak, salmentak, ekoizpena, burutzen zituzten lanak, eraikuntza eta handitze lanak... Laburbilduz, garai haietako Irunen bilakaera sozioekonomikoan hain pisuzkoa izan zen jarduera ezagutzeko baliagarri gertatzen den informazio oro. Ikerketa irudi anitzez lagunduta aurkeztuko da: argazkiak, kokapen planoak... Halaber, gaiaren ulergarritasuna errazteko dokumentuak ekarriko dira lanera.



Esther Iglesias Bidasoako AECC-ren presidentea eta Maider Sierra elkarteko psikologoa.

Minbiziaren Aurkako Elkartea, atea irekita

Urtarrilaren 17an eta 18an Minbiziaren Aurkako Bidasoako ordezkariak hiritarrei atea zabaldu zizkien, elkartearen jarduera ezagutarazteko asmoz. Jardunaldiei bukaera emateko, hilaren, 18an Jose Antonio Alberro Onkologikoko medikuak eta Maider Sierra psikologoak *Cara a cara con el cáncer* hitzaldia eman zuten.



Kabigorrik goi mailako olerki topaketak antolatu ditu

Kabigorri Ateneoak otsailaren 8tik 12ra burutuko diren Olerki Topaketak antolatu ditu. Aurten ere goi mailako egitaraua apailatu du, Bidasoako zaletu guztien gozamenerako. Hainbat mota eta formatutako poesia da, euskaraz zein gaztelaniaz, musikaren ezinbesteko laguntzaz.

Saioak 19:30ean hasiko dira

Erakusketa: (otsail osoan zehar)

Baraja de poesía visual contra la violencia machista, Eduardo Barberoren eskutik. Halaber, *Baile del Sol* argitaletxearen lanak erakutsiko dira.

Asteazkena, hilak 8:

Tere Irastorzaren poemak, Aitor Furundarenaren soinuaz lagunduta.

Osteguna, hilak 9:

Pello Otxotekok *Anphora baita* bere azken poesia-liburua irakurriko du, Esther Barandiaranek pianoz lagunduta.

Ostirala, hilak 10:

Tan lejos de Dios (mexikar poesia iparreko mugan), ikus-entzunezkoaren emanaldia, eta gero solasaldia Uberto Stabile zuzendariarekin.

Larunbata, hilak 11:

Baile en la frontera, olerki errezitala, Inma Luna, Uberto Stabile eta Jose Blancoren eskutik.

Igandea, hilak 12: Mario Benedetti, antologia txikia. Javier Sistiaga eta Esther Barandiaran (pianoa).



Pello Otxoteko



Inma Luna



Tere Irastorza

Tere Irastorza. Ibilbide oparoko poeta zaldibiarrek 2011n argitara eman zuen bere azken lana, *Eta orain badakit* izenburukoa, non zoriontasunaz hausnartzen baitu.

Pello Otxoteko. Bere lan gehienak poesian argitaratu baditu ere, literatur kritikan eta itzulpengintzan ere aritu izan da. Poesian bere azken uzta *Anphora baita* da, iaz argitaratutakoa.

Esther Barandiaran. Euskal Herrian (Donostiako Musika Hamabostaldian, adibidez) nahiz atzerrian kontzertuak eskaini ditu.

Nazioarteko zenbait sari eskuratu du.

Javier Sistiaga. Irakasle da Irunen, eta urte asko daramatza poesia emanaldiak egiten eta antolatzeko, jardunaldiok, esaterako.

Edu Barbero. Aragoarra, ikus-poeta eta argazkilari grinatsua. Bere lanak bakarkako erakustetan zein kolektiboetan erakutsi ditu, baita hainbat aldizkaritan ere.

Inma Luna. Kazetari eta antropologo madrildarra.

Eskuinean,
Eduardo
Barberoren
lan bat.
Behean,
Jose
Blancoren
ikus-poesia
bat.



Lau poesia-liburu plazaratu eta antologia anitzetan parte hartu du.

Uberto Stabile.

Poeta, editore eta kultur kudeatzailea. *Aullido* poesia bildumako zuzendaria;

Edita Editore

Independenteen Topaketa zuzentzen du, baita Iberoamerikar Liburuaren Huelvakoa ere.

Jose Blanco.

Barakaldoarra. Erregistro zabaleko polipoeta. Idazketa, collagea, musika zein edizioa lantzen ditu.



Ametsak amets, zer egin horiek gabe?

Urte berria beti da garai ona ditugun amets edo desioak lortzen saiatzeko. Hala ere, AMETS hitza aipatzen denean, beti bada aurpegi txarra jartzen digun norbait, beste mundu batean edo lotan bizi garela esaten diguna. Baina zer egingo luke gizakiak AMESTEKO GAITASUNIK gabe? Zertarako izan daiteke baliagarri AMETS EGITEA? Zein emozioekin lotzen dira ametsak?



Ametsak gure nahi, behar eta desioekin lotuak daude. Bizitzan, ametsak edo desioak poztasunaren bidean ipintzen gaituzte: badakigu zer nahi dugun eta, ondorioz, noruntz joan. Zer dut bizitzan zoriontsu izateko? Behar dudana aztertu (denbora niretzat, nire familiarentzat, lana beste modu batean bideratu, lagunekin egon, marraztu, zerbait ikasi...) dudana gozatu eta bilatzen ditudan helburuen erakusle dira gure ametsak. Sentimendu motibatzaileak sortzen ditu; bizipoza, esperantza... beti has gaitzake gauzak egunerokotik aldatzen. Bizimodua alda dezakegu gure jarrera mentala aldatuz gero.

Bestalde, AMETSAK ezin dira orain eta hemen segidan lortu, ez! Bestela ez lirateke ametsak izango. Ametsak edertasunarekin eta erromantikotasunarekin daude loturik. Desioak berehala betetzea nahi izaten dugu. Ametsak, aldiz, gure irrikaren isla izan daitezke; baina denboraz, pazientziaz eta ongi programatuz lortu behar diren erronkak dira. Ametsak lortzearen gakoa haiengan sineste-

an datza. Sinetsi eta barne indarra atera denboraren poderioz nahia lortzeko. KONFIANTZAREKIN gure buruan eta gure gogoan duguna errealak bilaka daiteke. Zergatik ez? Bestalde, ametsak ongi hautatu behar dira, errealak izan behar dute. Ezinezko ametsekin amesteko gaitasuna galtzen dugu. Gure ametsen helburuak errealak izan behar dute, eta guk zehazten dugu muga. Adibide bat: Nik dantzaria izatea amestu dezaket eta denbora hartu, talde batean izena eman, dantzatu eta gozatu... Baina nire helburua dantzari profesionala izatea bada, ametsaren helburua ez dago ongi bideratua, ezta? Bestalde, urtetan dantzan aritu den dantzariak profesionala izatea amestu dezake.

ETA GURE INGURUKO HAUR ETA GAZTEK ZER AMESTEN DUTE? Galdetzen al diegu gure inguruko haurrei? Erantzun desberdinak entzun ditzakegu, haien ingurunean mamitzen diren balioen arabera: animalia zaintzailea, baserri batean lagunekin bizitzea eta baratzeko gauzak saltzea, txotxon-



gilo egilea, igerilari profesionala, lagunekin musika taldea sortzea, futbolari famatua izatea...

Izugarri polita da haur edo gazteen ametsak entzutea. Baina benetan kasu egiten al

diegu haien ametssei? Edo penaz begiratzen diegu, guk garai batean genituenaz gogoratu eta lortu ez ditugula berretsiz? Ez al diegu gure haurrari maiz begiratzen eta gu izan ez ginena (edo izan ginena) izateko bideratu nahi izaten?

Guraso eta hezitzaileok haurren ametsak pizteko edo zapuzteko gaitasuna dugu, gure eragina handia da, eta egin dezakegun mesedeaz edo kalteaz gogoeta egitea funtsezkoa dugu. ZERGATIK EZ? Zergatik ez dute nahi dutena lortuko benetan indarra izan eta saiutzen badira? Argi dagoena da ez dituztela lortuko indarrrik gabe eta lortuko ez dutela pentsatuz gero, ezta?

Ametsak FRUSTRAZIO eta ESPERANTZA emozioekin lotuta daude. Ez ditzagun inguruko haur edo gazteak beharrik gabe frustratu! Ez diezaiegun zapuztu lor dezaketenen esperantza! Maiz antzematen dut gurasoek eta irakasleek, hitz eta keinuekin, haur batek bere desioak lortuko ez dituela adierazten dutela. Haurrak bere ametsak beteko al ditu guk, helduok, beteko ez dituela sinesten badugu?

SINETS dezagun pertsonengan, ESPERANTZA bidera dezagun. BIZITZAN AMETSAK BETE DITZAKEELA baietsiz eta EGUNEROKO ESFORTZUA BALORATUZ!!!!!!!

Helduak gara haurren autoirudiaren ispilu, gu gaituzte eredu uneoro, nor diren ikusteko eta beren gaitasunak baiesteko. Hortaz, haurren heziketa prozesuan zenbait hitz klabe gogoan izan behar dugu; KONFIANTZAN ETA SEGURTASUNEAN hezi haurra, autoerregula dadin. Konfiantzaz begiratu, zerbait egin behar duenean egin dezakeela adieraziz eta sinestaraziz, ondoan egonaz.

Hala ere, ametsak gaizki bidera daitezke, eta ametsak ez lukete karga handia suposatu behar. Beharbada, gaur ez gaude horiek lortzeko bidean; baina garrantzitsua da desioa eta grina edukit eta mantentzea. Gaur saiatu, borrokatu; baina, ezin bada, bihar gure baldintzak aldatu eta hobetzen direnean, berriro saiatu. Gaizki atera zaigun hori aztertu, hausnartu eta berriro ekin, behar adina aldaketarekin. Edoskitzaroan gaude-nok ametsak beste une baterako utzi behariko ditugu, ezta? Haurren hezkuntzaz gozatzeari jada nahikoa AMETS gauzatua da.

Silvio Rodriguezek dioten bezalaxe: "gora esperantza, hemendik pasa... beltza, gorri edo zuria baina MAITASUNEZ beterik"

Beno, lagun, ez utzi amets egiteari, ados? Nahiz eta ez lortu, amets egite hutsak jada momentu goxoak ematen dizkigu. Gainera, AMETS egiten dugun bitartean, bizirik gaudela badakigu.

URTE BERRI ZORIONTSUA! ESPERO DUGU DATORREN URTEAN ZURE AMETSAK GAUZATZEKO INDARRIK ETA BALDINTZAK ERAIKI AHAL IZATEA!!

MAPI URRESTI ORTIZ
kuttun@kuttun.net

Astean behin egiten dut Hendaiatik Zumaiara bidaia. Bide bat maiztasunez egiteak bizitzaren egunerokoa berritzen dizu, baita begiradak –eta pasadizoak– etengabe berritu ere.

Joshua

Itsasoa laino zegoen Hendaiatik Zumaiara bidean, eta laino sarria ere Zarauztik harantza. Eguna urratu-rik, Getarian nengoen jadane-ko, Juan Sebastian Elkanoren irudiak itsas zero-muga ozta-ozta seinalatzen zuen. Brastakoan, gizonezko tantaia agertu zitzaidan estatuaren pean. Eskuak altxaturik, liburuxka bat eskuan, gizon lirainaren txilioa entzun nuen:

– *Escuela, escuela, escuela.*

Herriko semaforoaren argi lausoek seinalatzen zidaten ingurumaria. Lehen semaforoaren berdeak, baina, artegatu ninduen. Behako zolia bota nuen atzerako ispilutik. Tanpez sakatu nuen galga-gailua. Ezezagunak atea ireki zuen eta esku zuria luzatu zidan liparreen:

– *Egun on! Vas a Zumaia?*

Haren belaunburuek salpikaderoaren maila gaintitzen zuten. Tarrapatata mintzatzen zen, eta nik, berriz, galderak tarrapatata egiten nizkion:

– *Me llamo Joshua (*). Soy de Mali.*

Frantsesa eta banbara hizkuntzak hitz egiten dituela esan zidan. Euskarazkoren bat tartekatu zuen berak. Berbaren batzuk ere frantsesez tartekatu nizkion neronek. Gaztelaniaz egiten zuen aise. Alabaina, bere ama hizkuntza ez da frantsesa ez banbara. Frantsesa *de jure* eta banbara *de facto* ditu. Bere bihotzeko hizkuntzaren izena ez dut gogoan atxiki.

Hiru seme-alabez mintzatu zitzaidan entusiasmo bereziaz. Bere emaztea Senegalekoa da: “Hizkuntzak barra-barra darabiltzagu gure artean. Seme-alabek ondo baino hobeto egiten dute



euskaraz”, esan zidan gogo biziz.

– *Lanik ba al duzu?*

“Bai, arrantzalea naiz joan deneko hogeitau urteotan. Andaluzia aldean jardun nuen Euskal Herrira etorri baino lehen. Azken bederatzitau urteotan hemengo uretan aritu naiz. Baina orain apen-

nas dagoen lana, ez lanik ez arrainik. Baina ni trebea naiz itsas lanetan. Arrain saldoak urrundik ikusten ditut, bista zoli-zolia daukat, eta hori patroiek biziki eskertzen dute...”

– *Euskaldunekin ongi?*

“Bai, ongi. Ehuneko 70-80 jatorrak dira. Hemen onen ehuneko altuagoa da Espainian baino. Getariako jendea jatorra da. Oso gustura bizi gara...”

Bitxia gero gauzak ‘kontatzeko’ moldea, pentsatu nuen

– “Magrebiarrak dira gaiztoenak gurekin. Eurek diskriminatzen gaituzte gehien. Arrazistak dira. Euren iritzi-rik, guk ez dugu Europara etortzeko eskubiderik, gu ez omen gara afrikarrak, edo ez euren kategoriakoak...”. Zumaian ginen jada. Semaforo gorriaren aurrean jaitsi zen. Auto- eskolara zihoan.

“Gida baimena behar dut, ezinbestean” esan eta eskertu zidan bidaia.

Argiako iritzi egile Arantza Urbe Irazustak oparitutako afrikar esaera zahar batek seinalatu zidan eguna: “Haur bakoitzaren heziketa tribu osoaren lana da”.

Joshua (*): Liraina, adeitsua eta maitagarria.

MIKEL ASURMENDI


Izkiriaturik aurkitu dudana nire saiakera

Moroak dira Joseba Sarrionandiaren saiakera honetako protagonistak. Moroak, baina, euskaldunok izan gaitezke. Izan ere, “gure” historiari buruzko lan erraldoian, idazlearen aburuz, pertsonok sorrarazitako “epiteto” moduko bat da *moroa*. Alegia, guk *moro* deitzen dugunak ez baitio bere buruari *moro* deitzen.

“Afrikarik gabe nik ezingo nuke neure burua esplikatu” esan ei zuen Francisco Francok. Gure historia Francorenaz harago doa, baina euskaldunon historia ez da ulertzen diktadorearena ezagutu gabe. Euskaldunok ere, beraz, zentzu horretan “*moroak*” gara.

Liburuaren titulutik beretik itauntzen digu iurretarak: *Moroak gara behelaino artean?* Itaunketaren abiapuntuan, abizen eta jatorri bereko Pedro Hilarion fraidearen –ez haren bakarrik, noski– eskizian “gure” historiaren berealdiko azterketa egin du egileak. Galdera, baina, Miguel de Unamunoren *Salutación a los rifeños* poematik hartu du “gure” poetak. Sarrionandia saiogileak, baina, beste galdera batez laburbildu du liburuaren titularen muina: “Ez ote dira Unamunoren berbak, poesia inperialistaren eredu hari, herri umeen (sic) aldeko erantzuna?”. “Umeen” dioen tokian “xumeen” erran nahi duelakoan nago. Dena dela ere, liburuaren muina hortxe dago.

Prefosta, titularen galderari ezin zaio galdera batez erantzun; alabaina, saiakera honen eta oro bat literaturaren muina galderak planteatzea da. Sarrionandiak galderak ezezik, “gure” historiaren lanketa sakona egin ostean, gaur egungo munduaren bilakabideari buruzko bere ikuspuntua eskaini digu. Hitz batez: *mundiala*.



Liburua:
Moroak gara behelaino artean?
Egilea: Joseba Sarrionandia.
Argitaletxea: Pamiela.

Moroak eta herri xumeak aipatu ditugu. Moroak nola hala bizi gara herri xumeak –tamazigh-tak eta euskaldunak–, behelaino artean bizi ere. Lainoa inperioaren hizkuntzak izaki, lainoak berak herri xumeon hizkuntzak blaitu dituztelarik. Kasurako, amazigera –berbere, xelha, tarifit– eta euskara (Nafarroan, egun, *vascuence*, kasurako). Ez dezagun pentsa ezein hizkuntzaren izena inozentea denik. Zentzu horretan, honatx idazlearen proposamena: Har ditza-gun (**n** edota *edin* edo *ezan*) subjunktiboak makulutzat. “Subjunktiboa da hipotesia, zalantza, desira, beldurra eta ez

denaren posibilitatea azaltzeko dugun modua”, diosku.

Hona, iruzkin honen neure itaunketa: *Zenbat Sarrionandia dago?* Arrapostuak: Bat, ETAKide ohia, hots, politikaria. Bi, idazlea, hots, poeta, narratzailea –ipuin nahiz eleberri-egilea –, linguista eta pentsalaria. Hiru, pertsona librea.

Moroak gara behelaino artean? liburuaren baitan “gure” hizkuntzak eta literaturak behar duten hizkuntzalari eta pentsalaria daude. Zergatik? *Hagatik*. *Hagatik* eta “*moroak*” ez garelako. Sarrionandiaren liburua ez delako testamentua, ez ezertarako agindua, liburu hau idatzi gabe dagoelako –iruzkin hau ere ez dagoen bezala–. Eta, oroz gainetik, herri xume –barbaro– zapalduontzat *tilili* (*) aldarrikatzen delako.

Pertsona librea, askatasuna eta *tilili*.
P. S. (*) *Tilili*: askatasuna, amazigeraz

MIKEL ASURMENDI

k u l t u r a g e n d a

Urtarrilaren 22ra arte

- Euskadiko Kutxaren aretoan, Pilar Esquinaren margo erakusketa.



Urtarrilak 24 - Otsailak 5

- Euskadiko Kutxaren aretoan, Juan Jose Etxebeguren Bergararen margo erakus-

keta.

Urtarrilark 23

- Irungo udal aurrekontuen aurkezpen publikoa. Amaia KZn, 19:00etan.

Urtarrilark 29

- Amaia KZn, 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

Otsailaren 5era arte

- Menchu Gal aretoan, Menchu Galen erretratuak eta Javier Alkainen lanaren lagina ikusgai.

Ikus-entzunezkoa euskaraz



Noiz: Urtarrilak 26

Non: Amaia KZ

Ordua: 19:30

Kiwizibidaia ikus-entzunezkoaren emaldia.

Rosa Lizasok, Mikel Bringasek eta haien seme-alabek Zeelanda Berrian barrena bizikletaz egindako bidaiaren kontakizuna.

Inauteriak

- **Otsailak 11**, Kaldereroek inauterian hasiera iragarriko dute Irungo kaleetan.
- **Otsailak 12**, eguerdian, Iñude eta Artzaen desfilea.
- **Otsailaren 16tik 22ra**, Irungo Inauteriak.
- **Hilaren 18an eta 19an**, arratsaldean, desfile handia Letxunborro hiribidetik abiatu eta San Juan plazan amaituko da.



Udal liburutegiko ekintzak

- **Urtarrilak 18,**
17:30ean, IPUIN
KONTALARIAK:
Ipuin Zaparrada.

- **Urtarrilak 19,**
18:00etan, Carlos
de Agustinen min-
tegia. *La*

Colmena. Camilo
Jose Cela - Mario Camus.

- **Urtarrilak 23,** 19:00etan, LIBURUFO-
RUM: *La balada del café triste.* Carson
McCullers.

- **Urtarrilak 25,** 17:30ean, haurrentzat
IPUIN KONTALARIAK: *La Bruja Brunilda.*

- **Urtarrilak 26,** 19:30ean, helduentzat
IPUIN KONTALARIAK: *Mátamela. Lo
que callan los rincones.*

- **Urtarrilak 30,** 17:30ean, POESIA
TALDEA: Mario Benedetti.

- **Urtarrilak 31,** 19:00etan, IRAKURKETA
TALDEA: *El caso Leavenworth.* Anna
Katharine Green.



Xabier Leteren omenezko kontzertua



Noiz: Urtarrilak 28

Non: Amaia KZn

Ordua: 19:00etan

Orain urtebete zendu zen Xabier Lete poeta eta kantari handiaren omenezko kontzertua, euskal izen handien eskutik: Mikel Urdangarin, Alex Sardui (Gatibu), Jabier Muguruza, Pier Paul Berzaiz, Arantxa Irazusta eta Petti. Karlos Gimenez, Joxan Goikoetxea, Xanet Arozena, Txema Garces, Luis Fernandez eta Miren Zeberio musikariek lagunduta. **Sarrerak:** 14,90€, eta 11,10€ 65 urtetik gorakoek eta gazte-txarteldunek.

Antzerkia haurrentzat euskaraz

Noiz: Urtarrilaren 21ean.

Non: Amaia KZn

Ordua: 17:00etan

Elurrezko panpina. Txotxongilo Taldea.

Elurra ari du!!! Eskolako neska-mutilek elurrezko panpin bat egin dute, baina... panpina ez dago oso pozik: hotzak dago eta. Neska-mutilek, bihotz zabalekoak direnez, aha-leginak egingo dituzte arazoa konpontzeko. Ez da hain erraza izango, dena den, eta denon laguntza beharko dute.



AIDIA

Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, www.irun.org/igazte webgunean.

Sariak



- **DOKTORE TESIENTZAKO INJUVE SARIAK.** Injuvek gazteriarri buruz hitz egiten duten doktore tesiak saritu nahi ditu, eta, aldi berean, esparru horretako ekintza zientifikoak sustatu.
Epea: abuztuak 17.

- **RUTA QUETZAL BBVA 2012 PROGRAMARAKO BEGIRALEAK.**
Betebeharrak: 22 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago izatea.
Titulazioak: lizentziadunak, ingeniariak, arkitektoak eta doktoreak. Titulazio bereziak: uretako eta lurpeko sorosle titulua izatea. Epea: otsailak 16. CVa posta arruntez bidaltzeko: Ruta Quetzal BBVA (Selección de Monitores) C/ Burgos, 19. Urbanización la

Cabaña
28223. Pozuelo de Alarcón
rutaq1@terra.es

Bekak



- **ESKOZIAN IKASTEKO STEVENSON BEKAK.**
Deialdigilea: British Council. Baldintzak: Unibertsitateko ikasle izatea edo ikasketak duela gutxi bukatu izana, eta 25 urte baino gutxiago izatea (salbuespen gisa, 35 urtetara).
Epea: 2012ko otsailak 10.

Laria



harpidetza



IRUN
Tel: 943 505 444
943 505 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adi egon nahi baduzu, eska leialguztu, eta estero bidaliko dirugu informazioa sare atxera nahiz posta elektronikora.


IZEN-ABIZENAK
HELBIDEA,
P.K. BEKRIA
POSTA ELEKTRONIKOA

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidecarta y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

Iritsi da Gazte-Txartelaren Pack 2011 berria!

Berritasunez beteta datozen packa da, eta 1.500 eurotik gora eskaintzen du abantailetan, 100 kupoi baino gehiagotan banatuta.

Museoak bisitatzea, zinemara joatea, udan surf egiten ikastea, eskiatzea, hizkuntzak ikastea (atzerrian edo etxetik mugitu gabe), hoteletan ostatu hartzea eta harrituta utziko zaituzten beste jarduera asko eta asko, Euskadi barruan zein kanpoan.



EGA LORTZEKO 2012KO AZKERKETAK

Euskararen Gaitasun Agiria lortzeko azterketa egin nahi baduzu, eman izena...

Noiz: Urtarrilaren 9tik 23ra.

Azterketa ereduak interneten

Ikasleek interneten auki ditzakete DBHko, Batxilergoko zein Unibertsitateko zenbait azterketaren ereduak.

Gazteak emantzipatzeko errentaren desagerpena

- EZ dira tramitatuko 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eskabideak
- Emantzipatzeko oinarriko errenta aitortua duten pertsonak onuradun izaten jarraituko dute, ezarritako baldintzetan.
- Salbuespen gisa, emantzipatzeko oinarriko errentaren onuradunak izaten ahalko dira 2011ko abenduaren 31n eskatu eta data horretan arauan ezartzen diren betekizunak betetzen dituztenak.



irunero aldizkaria non eskura daiteke?

ANAKA

ANAKAKO KASINOA
KUTXA
BURDINDEGIA (Kutxaren
aldamenean)
ANAKAKO AUZO ELKARTEA
BIDASOAKO OSPITALEA

BELASKOENEA:

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)
BELASKOENeko AUZO
ELKARTEA

ARBES eta PALMERA-MON-TERO

VICTORIA TABERNA
(Altzukaitz)
LA AGRICOLA
PALMERAKO HAINBAT
KAFETEGI-TABERNATAN

BEHOBIA eta ARTIA

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA
TRINKETE TABERNA (M^a
Juncal Labandibar kalea)
AZKEN PORTU KIROLDEGIA
KUTTUNA HAUR ESKOLA
(Artiako Caro Baroja plaza)

ERDIALDEA

HERRI JAKINTZA (Nafarroa
hiribidea)
BRASIL gozo-denda
ELKAR liburu-denda
OSKARBI Liburudenda
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)
KUTXA (Kolon)
JUBILATUEN ETXEA (Luis
Mariano)
VIRGINIA kafetegia
SIRIMIRI taberna
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)
KIOSKO 33 (Argentinari
Errepublikari)
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)
GAZTE INFORMAZIO BULE-
GOA (Foruen karrika)
EUSKARA Arloa (Foruen karri-
ka)
ACUBI (Foruen karrika)
IZOKINAREN KOFRADIA
(Kale Nagusia)
ARANO taberna
MANOLO taberna
SARGIA taberna
AEK Euskaltegia
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA
MENDIBILGO MUSIKA
KONTSERBATORIOA
ARTALEKU KIROLDEGIA

DUNBOA

TOMA PAN Y MOJA (S.
Pedro)
OSASUN ZENTROA
KUTXA (Nafarroa hiribidea)
ERKA (Salvador Etxeandia)
ALDABE paper-denda

LAPITZE

ANBULATORIOA
AMAIA KZ eta Pio XIIIko kios-
koa.
OGIBERRI (Serapio Mujika)
EUSKADIKO KUTXA (S.
Mujika)

MEAKA

MEAKAKO Bizilagunen
Elkartea
ERROTAZAR
OLA Sagardotegia

OLABERRIA

ESTEBENEA taberna
LABEKO ETXEA jatetxea

ALDE ZAHARRA

UDAL EUSKALTEGIA
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

GUNEN ELKARTEA

(Larretxipi)
EKT (Larretxipi, 12)
KURPIL KIROLAK (Peña k.)
HAZIA taberna (Peña kalea)
ESKINA taberna
EUSKADIKO KUTXA
(Urdanibia)
KULTURA Arloa
(Ospitale Zaharra)

ANTZARAN

NEKANE paper-denda
Lekaenea

SAN MIGEL

KOLON burdindegia
(Hondarribia kalea)
KUTXA (Zubiaurre)
EUSKADIKO KUTXA
(Zubiaurre)
SAN MIGELEKO AUZO
ELKARTEA (Luis de Uranzu,
24)
ATREZZO (Geltoki kalea)

SANTIAGO

AGUIRRE okindegia (Junkal)
CANON (Santiago k.)
SANTIAGO AUZO ELKARTEA
BIKOTE (Erromes plaza)

URDANIBIA

TANDEM kafetegia

KATEA

KATEKO AUZO ELKARTEA

LARREAUNDI

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)
AUZO ELKARTEA
(Iñigo Loiolako)
LARRARTE Harategia
(Eguzkitzaldea, 17).



Gipuzkoa TB Txingudik
Bidasoaldean % 100eko
estaldura du

Kontsultak edo instalazioak
egiteko:

Ilargi Antenak

943 64 50 33



txingudi



Biltegi eta bulegoak:
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

Dendak:
San Francisco, 15 - 20002 Donostia
San Francisco, 24 - 20002 Donostia
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia
Isabel II, 15 - 20011 Donostia
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

Erka Osagai Elektrikoak S.L.
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48
20304 Irun



- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.
- Lanpara erakusketa.